

Mikel Etxezarreta Lasa

A maila • 2 saria

FALTA DA!



EUSKERA, GURE HIZKUNTZA

Hizkuntza arrotzak sortzen

Digulako mina

Euskaran alde egin

dugu alegina

Bera gabe mundua

ez baita berdina

Euskara behar dugu

odola adina

Gaztelera jartzen da

Sarri jaun ta jabe

Entzun ongi zaharrak

heldu ta nerabe

Imagina zazue

xuabe-xuabe

Zer litzatekeen hau

Euskerarik gabe

Urtero ospatzen da

Abenduan hirun

Baina urte osoan

nahi dugu ingurun

Kaskagogorrek izan

jardun eta jardun

Euskaldunak bagara

erabil dezagun

Nik erakutsi nahi dut
euskaldun naizena
horretarako hauxe
soluzio onena
asko erabiltzea
garrantzitsuena
bera baita euskaldun
eiten gaituena

Euskara bultzatzeko
ein dezagun lana
saia gaitezen denok
pixkanan pixkana
euskararen kulturaren
badulako zama
bertsolari guztiei
besarkada bana

Euskara lehenago
ibiltzen zen erkin
ta bera bultzatzeko
ai zenbat alegin
hezkuntzan ere dabiltz
ekin eta ekin
geroan nahi baitegu
guk euskaraz egin